

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a / 607. zenbakia



## DENOK EUSKARAZ

Euskararen Egunerako ekitaldiak deitu dituzte

MENDIA: POU ANAIEN IKUS-ENTZUNEKOA GAUR/8 • KULTURA: AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA/12

AZALA: MAITENA ARANA

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 26**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**ZAPATUA, 27**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**DOMEKA, 28**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**ASTELEHENA, 29**  
MOZOS, Iparragirre 2. .... 943 76 12 15

**MARTITZENA, 30**  
CAMACHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**EGUAZTENA, 1**  
ZABALA, Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**EGUENA, 2**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**  
Anbulatorioa (txanda) .... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa .... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa .... 943 76 62 46  
Ertzaintza .... 943 53 47 20  
Osasun etxea .... 943 76 24 40  
Asepeyo .... 943 76 16 43  
Pakea .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua .... 943 76 62 23  
Odol emaleak .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak .... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa .... 943 77 91 32  
Igerilekuak .... 943 76 20 51  
Kultura etxea .... 943 77 91 58  
Liburutegia .... 943 77 91 62  
Kiroldegia .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia .... 943 76 14 92  
Erregistroa .... 943 76 13 15  
Jardun .... 943 76 36 61  
Idolaz .... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea, Bergara .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea .... 943 76 26 85  
Bedelkar .... 943 76 04 68  
Akulu AEK. .... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia .... 943 76 44 53  
Bergarako notarioitza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Labegarieta</b> Domekak: 11:00. <b>San Lorentzo</b> Zapatuak: 20:00. <b>Angiozar</b> Domekak: 11:00. <b>Moja Zaharrak</b> Lanegunak: 08:00. <b>Mizpirualde</b> Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
<b>Santa Marina</b> Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	<b>Antzuola</b> Domekak: 10:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>Sierbak</b> Lanegunak: 19:30	<b>Uzarraga</b> Domekak: 10:00.
<b>Osintxu</b> Domekak: 12:00.	<b>Elgeta</b> Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30.
<b>Elosu</b> Domekak: 11:00.	<b>Elorregi</b> Domekak: 12:00.
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	
<b>Elorregi</b> Domekak: 10:30.	

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.  
**San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

**OHARRAK**

**1980AN JAIOTAKOAK**  
1980an jaiotako bazkaria azaroaren 27an, Txarrantxan. Izenematea Euskadiko Kutxan.

**1957AN JAIOTAKOAK**  
1957an jaiotako afaria azaroaren 27an, Zumelagan. Frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Izenematea (10 euro aurrez) Intxorta tabernan.

**1946AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1946an jaiotako afaria azaroaren 27an, Tartufo jatetxean (943 76 35 51).

**1934AN JAIOTAKOAK**  
1934an jaiotako bazkaria azaroaren 27an, Torrekua jatetxean, 14:45ean. Izenematea (12 euro aurrez) Torrekuan bertan.

**1944AN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1944an jaiotako afaria azaroaren 27an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea: 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

**1950EAN JAIOTAKOEN AFARIA**  
1950ean jaiotako afaria abenduaren 4an, Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenematea (38 euro) Euskadiko Kutxan.

**1981EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA**  
1981ean jaiotako bazkaria abenduaren 11n, Txarrantxa jatetxean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan, abenduaren 7ra arte.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTEBURUKO JARDUERAK**  
Txapligu taldekoek irrati saioa izango dute zapatuan eta kamiseta tindaketa domekan, Arrizuriagan, 16:00etatik 20:00etara bitartean bi egunetan.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegarieta / Oلابarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERGARAN**

**Ariznoako gimnastak, Euskadiko txapeldunak**

Ariznoa Gimnasia Erritmikoko alebin eta junior mailetako taldeek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten 1994ko azaroaren 27an. Horren ondorioz, bi taldeek Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuten. Era berean, Diputazioak junior mailako Amaia Arrieta eta Ana Sebal gimnastak nabarmendu zituen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**



— Enbido! — Bi geixao! — Ordago! JON IRAEGI

**ASTEKOPELIKULAK**

**'COLLATERAL'**

ZUZENDARIA: MICHAEL MANN. AKTOREAK: TOM CRUISE, JAMIE FOXX, JADA PINKET SMITH.

**HARIA.** Narkotrafikatzaile kartel bateko hiltzaile batek taxilari bat bahituko du gau batean, Los Angelesen bost pertsona hiltzeko...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Eguena, 18 **2°C**

**MAXIMOA**  
Zapatua, 20 **14°C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)** **6,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 17	12°C	7°C	- l/m²
Eguena, 18	10°C	2°C	- l/m²
Egubakoitza, 19	12°C	3°C	6,9 l/m²
Zapatua, 20	14°C	9°C	- l/m²
Domeka, 21	12°C	6°C	- l/m²
Astelehena, 22	12°C	6°C	- l/m²
Martitzena, 23	13°C	8°C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**'BOMBÓN, EL PERRO'**


ZUZENDARIA: CARLOS SORIN. AKTOREAK: JUAN VILLEGAS, WALTER DONADO.

**HARIA.** Historias mínimas egin ondoren, Carlos Sorin zuzendaria lanik gabe geratu den gizon bakarti baten istorioa dakarkigu. Bizitza hobe baten itxaropena ekarriko dio Bombón izeneko txakurrak protagonistari. Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztutako filma.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean, abenduaren 2an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**BERGARA Margoak**



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

# TREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu autobus geltokia tokiz aldatzea?



**LOLI HORRILLO**  
42 urte



**FERNANDO PEREZ DE AGUADO**  
41 urte



**IGONE GARITANO**  
43 urte



**JONE LOPEZ**  
37 urte



**ANTONIO MONTAÑA**  
26 urte



**NEREA APERRIBAI**  
37 urte

lekua hobe bada eta bizi-eguneragi eragiten dien kaltea gehien badu ez zait gaizki iruditzen. Ni oraino geltokitik gertu bizi naiz eta bertira joateko ere ez daukat asko ibili beharrik.

Nik oso gutxi erabiltzen dut autobusa, beraz berdin zait aldatzea. Hala ere, garraio publikoa erabiltzeko esaten duten horiek konturatu beharko lukete zein gaizki dagoen zerbitzua.


Autobusei sartu eta irtetea errazten badie ez zait iruditzen oso urruti dagoenik ere. Hala ere, jendearentzat oraino geltokia erosoagoa da, aterpea baitago, eta bestean ez da egongo.

Aldaketa oso ongi iruditzen zait. Autobus geltoki gainean bizi naiz eta zaratak, kea eta usaina jasanezinak dira. Gainera, autobusak hamar minutuz egoten dira geldi bertan askotan.

Oso ongi iruditzen zait, eta leku berria egokiagoa da; gainera, ez dago hain urruti ere. Ni ez naiz bertan bizi, baina hango bizilaguentzat geltokia han izatea nekagarria dela uste dut.

Ez zait gaizki iruditzen aldaketa baina oraino erdi-gunetik gertuago dago, eta gainera erosoagoa da. Ni autobus geltokitik gertu bizi naiz eta zarata handirik ez dut sumatzen.

## VALOAKETATXISTUAK



**VALOAKETATXISTUAK EDUKIONTZIAK KENDU DITUZTENEI** Irakurle batek esan digu obrak direla eta Migel Altuna institutuaren aldamenean zeuden zakarrentzako edukiontzia kendu egin dituztela. "Inolako abisurik gabe kendu zituzten edukiontzia eta orain zabor poltsak botatzeko orain joan behar dugun ere ez dakigu ia". Inguru horretako bizilaguentzat edukiontzia gertuago ipintzea eskatzen du, gainera. /A.

## ETABARRUAN...

ASTEKO /4	KIROLA /8	KULTURA /12
<b>Katalogo bateratuan</b>	<b>Eski eta mendi denboraldia</b>	<b>Poesia emanaldia gaur</b>
Udal Liburutegia EAE Liburutegien katalogo bateratuan izango da abenduaren 17tik aurrera.	Eski eta mendi denboraldirako txartela egiteko epea zabaldu dute Pol-Poleko bulegoan.	Jardunen eskutik Bihotz Bakartien Kluba taldearen <i>Arrakalak</i> poesia emanaldia gaur, gaztetxean.

## ASTEKODATUA

# 3.020

**UDAL LIBURUTEGIAK DUEN BAZKIDE KOPURUA**

Udal Liburutegiak 3.020 bazkide ditu gaur egun. Abenduaren 17tik aurrera Euskal Autonomi Elkarteko Liburutegien katalogo bateratuan izango da Bergarako Udal Liburutegia.

## BESTEKEKESANA

**“Badira nire lanak ikusita estilo abstraktuan kokatzen dituztenak, baina beste hainbat gauzaren artean abstrakzioak ez dituzte elementu konkretuak islatzen. Zoriarekin jolasten dut. Ez dut bozeto baten gainean pintatzen, pintzela hartu ahala bururatzen zaidan hori islatzen dut koadroetan. Horretarako oinarritzko koloreak erabiltzen ditut: urdinak, okreak, beltzak, berdeak edo horiak, nire lanei argia ematen diete. Ez naiz koloreak nahasten lutzazaren zalea, ez baitut birtuosismoetan erortzerik nahi. Beraz, gehienetan koadro bati baino gehiagori aldi berean forma emateko ohitura dut, lan bakar batean denbora luze ez jarduteko. Pena da gaurko gazteek nire obra ez ulertzea, baina ez diot garrantzirik ematen, ez behintzat gustatzen zaidan hau uzteko beste”**  
BINGEN DE PEDRO / Margolaria 'El Diario Vasco' /04-11-21

## BERAIEKIDINE/ Unai Lopez



*Zuek bai tximuak, zuek!*

Ostiral gaua Glasgoven; kalean ez da giro, hotz handia, zero azpitik gradu pare bat. Ohi bezala, aste osoko tirabirak irensten lagunduko digun *pintaxo* bat edateko asmoz hemengo lagun batzuekin elkartzekoa naiz hiri erdiko taberna baten. Gaurkoan era xelebrea agurtzen naute ikusi bezain laster... zer demontre! Tximuarena egiten? Ez! Hauek ere bai... Izan ere, Gabonetako argi, zuhaitz eta erosketaz itsuturiko Erresuma Batuko bizimodu "lasai" hau gogor astindu duten irudi lotsagarri eta penagarriak heldu zaizkigu kirolaren izenpean. Edukia: Arrazakeria; azalaren kolore ezberdinaren aurrean zenbait zentzugabek Madrilen jokaturako futbol partidu baten harturiko jarrera, tximinoarena, alegia. Hitz hauek idazten dihardudala zenbait gogoeta datozkit burura. Kirol mailan, greziarrek Joko Olinpikoak sortu zituztenez goraipaturiko

balore nagusi hura, lurralde, estatu, bandera eta kolore denak anaitasunean batuko zituen amets hura, hain zuzen ere. 2012rako gogotik lan egin beharko du Madrilek, utzitako irudia garbitzeko. Gogoetekin jarraituz, eta gizarte mailan, garai honetan arrazakeria beste behin lehen mailako arazo izatea batik bat arduragarria dela ezin ukatu. Zer eta azalaren kolore hutsa. Ikusi, indiar eta nigeriar batekin bizitzeko aukera dut gaur egun. Hiru kontinente, hiru bandera, hiru kolore; baina gure azal azpian sentimendu, behar eta nahiak bakarrak, edozein gizakik lez. Zein da ezberdintasuna? Azal kontua bada, Madrileko tximu haiei esatea gustatuko litzaidake ilunpetan ez dagoela kolorerik, hortaz, koloreak norberaren begietan sortzen direla; bihotzen txanda izaten da orduan. Eta hor ez dago mugarik. Tximu batek hau ulertzeko gehiegitxo?

**“Madrileko tximu haiei esatea gustatuko litzaidake ilunpetan ez dagoela kolorerik”**



Bergarako Udal Liburutegiak 3.020 bazkide dauzka gaur egun.

ARTXIBOA

**KULTURA/** Txartel berriarekin beste liburutegien fondoetara jotzeko aukera egongo da

## Udal Liburutegia, EAEko katalogo bateratuan

EDU MENDIBIL

Bergarako Udal Liburutegia Euskal Autonomi Elkartearen Liburutegien katalogo bateratuan izango da abenduaren 17tik aurrera. Horren ondorioz, bazkideek Bergarako zein beste herrietako liburutegietara jo ahal izango dute Internet bitartez.

Bergarako Udal Liburutegiko bazkideek txartel berria izango dute urtariletik aurrera. Bazkide bakoitzak bere pasahitza izango du, Internet bitartez kontsultak egin ahal izateko. Esan bezala, Udal Liburutegia EAEko Liburutegien katalogo bateratuan

integratuko da. Horrela, bazkideek hainbat abantaila izango dituzte. Esate baterako, txartel bakarrarekin katalogoan diren liburutegietara jo ahal izango dute erabiltzaileek. Era berean, Internet bitartez kontsultak edo erreserbak egin ahal izango dira [www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua) Interneteko helbidean.

### BAZKIDEEN DATUAK

Bergarako Udal Liburutegiak asmo honen berri eman die bere bazkideei, gutun baten bitartez. Bazkideen datuak beste udal liburutegien esku ere egongo direnez, norbaitek eragozpenen bat balu bere datuak bertan azaltzeko, azaroaren 30 baino lehen liburute-

gian jakinarazi beharko du. Mila Agirrezabal Udal Liburutegiko arduradunak zera esan digu: "Datuen babes legea dela eta, inork ez badu nahi bere datuak zabaltea, horretarako aukera dauka. Txartel berria urtarilerako gertu izatea da gure asmoa".

Bergarako Udal Liburutegiak 3.020 bazkide ditu gaur egun. Honako ordutegia dauka liburutegiak: aste barruan 09:00etatik 21:00ak arte dago zabalik eta zapa-tuetan, berriz, 09:00etatik 13:00ak arte. Liburutegian 16.000 bolumen inguru dituzte. Horrez gain, CDak eta DVD zein VHS formatuan grabatutako filmak eta bes-telako saioak eskuragarri daude erabiltzaileendako.

## Erakusleihen lehiaketa herriko komertzioei zuzenduta

E.M.

Udaleko Kultura Zerbitzuak erakusleihen lehiaketa deitu du herriko komertzioen artean. Erakusleihoak abenduaren 10etik 17ra prestatuta egon beharko dira lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Aurrez izena eman beharrik gabe, Bergarako merkataritza-establezimendu guztiak aintzakotzat hartuko dira lehiaketan. Esan bezala, abenduaren 10etik 27ra bitartean (biak barne) prestatuta egon beharko dute erakusleihoek. Epaimahaiak, besteak beste, publizitate mezua-ren imajiazioa, orijinaltasuna eta eraginkortasuna izango ditu kontuak sariak ematerakoan. Erakusleihonetan establezimenduan saltzen diren ohiko artikuluak

agertu beharko dute eta apaintzeko orduan gorosti, goroldio, erratz eta izei naturala ez erabiltzea erregutzen dute antolatzailleek.

Aurreko urteotan bezala, hiru sari banatuko dira eta saridunetako bakoitzak 250 euro eta garai-kurra jasoko ditu. Epaimahaiaren erabakia abenduaren 20an emango da jakitera.


### GABONETAKO ARGIAK

Béstalde, Gabonetako argiak abenduaren 13an piztuko dituzte. Aurreko urteotan bezala, Maykolux enpresa arduratuko da argiak jartzeaz. Hala ere, beste urte batzutan baino argi gutxiago jarriko dituzte aurtengo Gabonetan. San Martin plazan, Mizpirualde egoitzan eta San Antonion bakarrik jarriko dituzte, 5.000 euroko aurrekontuarekin.




Erakusleihoak abenduaren 10erako gertu egon beharko dute.

ARTXIBOA



## Herran

**ELEKTRIKAKO TRESNAK:** Matxiategi 3 • 943 76 12 22  
**SUKALDEKO ALTZARIAK:** Matxiategi 4 • 943 76 37 53



**HIRIGINTZA/** Udaltzarak 249.900 inguruko aurrekontua onartu zuen egubakoitzean

# Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektua abian

**Bergarako rock taldeek erabiltzen duten Goiko Estazioko eraikina berritzeko proiektua lehiaketara ateratzea onartu zuen udaltzarak egubakoitzean. Mikel Larrañaga arkitektoaren proiektuak 249.900 euro inguruko aurrekontua dauka.**

Esan bezala, Udalak 249.859 euro bideratuko ditu rock taldeek erabiltzen duten eraikina berritzeko. Joan den egubakoitzean udaltzarak lanak adjudikatzeko lehiaketa deitza erabaki zuen, aho batez. Behin lanak adjudikatu ondoren, proiektua bere gain hartzen duen enpresak hiru hilabeteko epea izango du lanak amaitzeko. Lanak 2005eko hasieran hastea da Udalaren asmoa. Beraz, udaberrirako lanak amaituta egongo lirake. Goiko Estazioko eraikina berritzeaz gain, inguruaren urbanizazioa ere jasotzen da Mikel Larrañagaren proiektuan.



Rock taldeek 2000 ezkeror erabiltzen dute Goiko Estazioko eraikina.

ARTXIBOA

## ERAIKINA, EGOERA TXARREAN

Goiko Estazioko erakinak bi solairu ditu eta solairu bakoitzean entseguetarako bost espazio eta komunak aurrekusten dira. Herriko hainbat musika taldek 2000 ezkeror erabiltzen dute eraikina entseguetarako. Eraikina-aren egoera txarra zela eta, Udala berritze proiektuaren gainean lanean hasi zen. Ekainean onar-

tu zuten Larrañagaren proiektua eta, aurrekontua onartu ondoren, lanak 2005ean egingo dira.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Bestalde, atzo, azaroak 25, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna zela eta, Udalak konpromisoa hartu zuen emakumeen berdintasunaren alde eta euren aurka-

ko indarkeriaren kontrako politika aktiboa izateko. Era berean, udalerriko emakumeak eta, batez ere, gizonak indarkeriaren honen aurkako jarrera aktiboa izatera animatzen ditu Udalak, indarkeria hau ez onartuz, isilik ez geldituz, eta biktimei lagunduz. Emakunderen adierazpen instituzionalarekin bat egin zuen udaltzarak aho batez.



## Bergarako koadrila bat Argentinan, La Platako Euskal Astean

Argazkian azaltzen diren bergararrak Argentinan izan ziren urrian. Erretratua La Plata hirian aterata dago. Hain zuzen ere, urriaren bukaeran Euskal Astea ospatu zuten La Platan eta Argentinako beste hainbat hiritan. Jakina da euskaldun jatorria duen jende ugari bizi dela Argentinan. Bixente Iburguren bergararra ere aspalditik bizi da han. Bixente eta haren emazte Maruxarekin elkartu ziren bergararrak. Irudia La Platan egindako desfilean ateratakoa da, urriaren 24an.

# Autobus geltoki berria abendu erdialderako jarriko dute

E.M.

Udalak eskatutako lau marka-sina heldu bitartean ez dute Torrekuko autobus geltoki berria martxan ipiniko. Geltokiko txukuntze lanak amaitzeaz daude, eta abendu erdialdean zabaltzeko asmoa du Udalak.

Markesinak ez dituzte oraindik jaso eta beraz atzeratu egin beharko dute autobus geltoki berriaren zabaltzea, Torrekuan.

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako langileek amaitzeaz dituzte geltokiko txukuntze lanak. Esan bezala, marquesinak heldu bezain pronto geltoki berria zabalduko dute. Juanjo Arrieta Gobernazio batzorde buruak adierazi digunez, aben-

du erdialderako martxan egongo da Torrekuko geltokia.

## ARRIZURI, NORABIDE BAKARREKOA

Udala eta Pesa autobus konpainia ados jarri ziren geltokia Torrekuan jartzeko orduan.

Azken bi urteotan egon den lekutik kentzeko erabakia hartu zuen Udalak, geltokiaren pareko Iburgaraino bizilagunek kezak azaldu dituztelako. Behin behineko geltokia Iburgarain kokatu zutenetik kontra azaldu ziren. Bizilagunen arabera, autobusen zarata eta kea jasangaitza zen.

Torrekuan hainbat aparkaleku galduko direnez, horiek nolabait errekuaratzeko Arrizuriko aldapan errepidearen bi aldeetan aparkatu ahal izango da eta norabide bakarrekoa izango da, behetik gorako helbidean.



Torrekuan amaitzeaz daude geltokiko txukuntze lanak.

E.M.

## LABUR

### Aurtengo azken odol ateratzea egingo dute eguaztenean, abenduaren 1ean, Seminarioan

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak dei egingo du eguaztenean, abenduaren 1ean, Seminarioan egingo duten odol ateratzean parte hartzeko.

Ohikoa den moduan, 18:30ean hasiko da odol ateratzea. Urteko azken odol ateratzea izango da eguaztenean. Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie urtean zehar laguntza eman duten odol emaille guztiei.

### Agustin Untzurrunzagak atzerriartasun legearen gainean jardungo du eguaztenean

Bergarako Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, Agustin Untzurrunzagak SOS Arrazakeriako kidearen hitzaldia izango du eguaztenean, abenduaren 1ean, kultura etxean, 19:00etan. Atzerriartasun legearen aldi baterako xedapena izango du aztergai Untzurrunzagak.

### Arrateko aterpetxera joateko irteera antolatu du Jardunek, gaztetxoei zuzenduta

Jardun elkarteak abenduaren 10etik 12ra bitartean Arrateko aterpetxera joateko irteera antolatu du. Irteera Txapligu taldeko neska-mutikoendako antolatu dute.

Izenematea zabalik dago Errotalde jauregian Jardunek duen bulegoan. Argibideak bertan edo 943 76 08 19 telefono zenbakian.

**EUSKARA/** EHE, AEK eta Jardun elkartearen eskutik hainbat ekitaldi izango dira Munibe plazan

## Euskararen Eguna ospatuko dute datorren egubakoitzean, abenduaren 3an


E.M.

**Euskeria zabaltzia, danon konpromisua** lelopean, Euskararen Eguna ospatuko dute datorren egubakoitzean, abenduaren 3an. EHEk, AEK-k eta Jardun elkarteak hainbat ekitaldi iragarri dituzte egun horretarako.

Antolatzaileek martitzenean eman zuten Euskararen Egunerako antolatutakoaren berri. Esan bezala, datorren egubakoitzean, abenduaren 3an izango da Euskararen Eguna. Debagunek, herriko ikastetxeek, Udal Euskaltegiak eta Udaleko Euskara batzordeak ere lagundu dute antolaketan.

### PROGRAMA ZABALA

Ekitaldiak Munibe plazan izango dira, 12:30ean hasita. Euskararen aldeko mezuak jartzeko mural erraldoia jarriko dute, eta 12-16 urte bitarteko gazteek jardungo dute mezuak idazten. Era berean, Euskararen Egunerako sortutako boligrafoak banatuko dituzte.



Argazkian, Iñigo Arregi (EHE), Gurutze Ariznabarreta (Jardun) eta Irene Murgiondo (AEK) martitzeneko prentsaurrekoan.

Arratsaldean, Haurren Txokoa izango da, 17:00etan. Neska-mutikoek, irakasle eta begiraleen laguntzaz, marrazkiak egin eta jolasteko aukera izango dute.

Egindako marrazkiak ikusgai jarriko dituzte Munibe plazan. 19:30ean, Telesforo Monzon zenari omenaldia egingo diote, bertsolari, dantzari eta kantarien

laguntzaz; 20:00etan afari-merienda egingo dute. Bukatzeko, Jaione Olazabal eta Oskar Estangaren *Berriketan* bertso emanaldia izango da Pol-Polen, 22:00etan.

## LABUR

### Juan Luis Bikuñaren liburua aurkeztuko dute egunean

Juan Luis Bikuña kazetari bergararrak idatzitako *Bergarako Batzokia: 100 urte* liburuaren aurkezpena egingo dute egunean, abenduaren 2an, Miguel Altunako aretoan, 19:30ean. Besteak beste, Xabier Arzallusek hartuko du parte aurkezpenean.

Bikuñak Bergarako Batzokiaren historia jaso du liburu horretan. Aurten 100 urte betetzen dira Batzokia zabaldu zutela.

### Anorexia eta bulimia aztergai martitzenean

Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuta, anorexia eta bulimiaren gaineko ikastaroa egingo da martitzenean, azaroaren 30ean, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. Hainbat adituren eskutik, elikadura trastornoak aztertuko dituzte martitzenean.

Ikastaroa doan da eta parte hartzeko interesa dutenek 943 77 91 24 telefonoan eman dezakete izena.



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

INGAINARITIRAKA



Begoña  
Caamaño

EKILUR BELAR DENDAkoa

Ekilur belar denda jarri du Begoñak duela gutxi. Galiziarra da bera, baina, orain dela hilabete batzuetatik, Bergaran bizi da. Kazetaria izandakoa da, eta fitoterapiari eta sendabelarretan aditua da; hainbat ikastaroa egin ditu horren gainean.

Sendagai alternatibo eta naturalek geroago eta arrakasta handiagoa dute. Zergatik?

Garai baten izan zuten arrakasta berreskuratu dutela esango nuke; jendeak gaur egun baino askoz gehiago zekien medikuntza naturalaren gainean. Medikuntza konbentzionala, batzuetan, ez da egokiena; gainera, jendeak ez daki sendagaiak zer duten ere. Jendea geroago eta gehiago arduratzen da horrelako gauzekin. Ze produktu saltzen dituzue?

Denetik; gainera, Ekilur belar denda izateaz aparte, para-farmazia ere bada; sendabelarrak, sendagai naturalak, antisorgailuak, kompresak, umeendako janaria, janari ekologikoa, kosmetikoak... Horretaz gain, mediku kontsulta ere baduzue, ezta?

Bai, sendagile naturista bat etortzen da astean egun batzuetan. Zure lanean gehien gustatzen zaizuna. Eta gutxien?

Jendearekin harremana izatea; gainera, egunero zerbait berria ikasten dut. Gutxien, berriz, diru kontuak eramatea.

Kanpoko izanda, zela ikusten duzu gure herria? Zer falta da? Zer gustatzen zaizu gehien Bergaran?

Momentu honetan, kaos bat da herri hau. Komunikazio hobeak eta gehiago falta direla uste dut. Gehien gustatzen zaidana, berriz, inguruko mendiak eta pasaiak duen kolore berdea da.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Irakurtzea, paseatzea, lagunekin egotea eta euskara ikastea; pixkanaka-pixkanaka badihardut ikasten.

Liburu bat?

*El segundo sexo*, Simone de Beauvoir-ena eta *Crimen y castigo*, Dostoievskirena.

Film bat?

*Novecento*.

Musika talde bat?

Berrogüetto galiziarra eta Benito Lertxundi.

Amets bat.

Errentaren banaketa, gosea bukatzea, hiesa desagertzea, pertsonen eta herrien esplotazioa amaitzea... Pertsonalki, berriz, zoriotsu izatea, beste barik.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

ISMA GONZALEZ

31 URTE / ADMINISTRATIBOA / DON BENITO (BADAJOZ)

“Bereziki, egueneroko koadrilako afariarekin eta mus partidarekin asko akordatzen naiz”

AINZANE IRIZAR

**H**amabi urte daramatza Ismak Bergararik kanpora bizi izaten; Madrilerera joan zen lehenengo, eta hantxe bizi izan da orain dela sei hilabetera arte. Badajozen bizi da gaur egun, Don Benito herrian, hain zuzen ere.

Elementaleko ikasketak bukatu zituenean, Madrilerera joan zen ikastera; horrelaxe gogoratzeko ditu Ismak garai haiek: “Aldatzeko gogoia nuen; gainera, garai hartan ez zen batere erraza lana aurkitzea. Madrilerera joan nintzen; hantxe batxilergo artistikoa ikasi eta Artearen Historian lizentziatu nintzen ondoren”.

Ez zitzaion asko kostatu bizi-modu berrira ohitzea: “Oporretan ezagututako lagunak neuzkan Madrilen, eta horrek asko erraztu zizkidan gauzak”, gogoratzen du Ismak. Esan bezala, Artearen Historian lizentziatu zen Isma; ikasketa horiek bukatu eta ikerketa beka bat eman zioten. Horrela, doktore tesia egin zuen. “Doktoretza egin nuenean, lanean hasteko garaia heldu zitzaidan, eta orduan iritsi zitzaizkidan arazoak; azkenean, kostata, baina, lortu nuen lanean hastea, administrari moduan, aseguru etxe baten”, azaldu digu Ismak. “Ikasle moduan oso ondo bizi izan nintzen Madrilen, oso giro ona dago; baina, gero, ikasketak buka-

tu nituenean, gauzak aldatu egin ziren. Han bizi izateko dirua behar duzu, oso garestia da Madrileko bizimodua”, diosku. Etxebizitza bat erostea, berriz, ia ezinezkoa dela azaldu digu Ismak: “Bergaran ere ez da erraza izango, baina, soldatak Madrilen baino handiagoak dira, behintzat”.

Orain dela bi urte Ageda ezagutu zuen Ismak, bere neska laguna. Madrilen ezagutu zuten elkar, baina, Ageda Extremadurakoa da, Don Benitokoa, hain zuzen ere. “Ageda irakaslea da eta Don Beniton bizi zen nik ezagutu nuenean; bi urte pasatu dugu ia astebururo kilometro mordo egiten, elkarrekin egon ahal izateko”, azaldu digu Ismak. Azkenean, zirt edo zart egin behar zutela ikusi zuten, eta orain dela sei hilabete Don Benitora (Badajoz) joan zen Isma bizi izatera.

“Nork esan behar zidan niri Badajozko herri baten bukatu behar nuela!”


“Nork esan behar zidan niri Badajozko herri baten bizi izaten bukatu behar nuenik!”, diosku Ismak. Baina, “oso gustura” bizi da hantxe Ageda neska lagunarekin, eta administrari moduan dihardu lanean, tailer baten.

Badajoz probintziako hiru herri handienetako bat da Don Benito; 30.000 biztanle inguru ditu, Bergararen bikoitza. “Hala ere, Bergara baino lasaiegia da. Bergararekin alderatuta hemengo bizimodua ezberdina den arren, niretako lehengo bizimodura itzultzea bezala izan da”, diosku Ismak. Izan ere, hamabi urtez Madrilen bizi ondoren, Don Benitoko bizimodua oso lasaia da, zeharo ezberdina da.

Orain dela hilabete etorri zen Bergarara azkeneko aldiz; “Madrilen bizi nintzenean, sarriago joaten nintzen, baina, Don Benitotik Bergarara, zazpi edo zortzi ordu behar ditugu”.

Begararen hutsunea narritzen duen galdetuta, segituan erantzun digu: “Bai, horixe; batez ere, egueneroko koadrilako afaria eta mus partidarekin asko akordatzen naiz; pentsa, Bergarara etortzen naizenean, ahal badut, eguaztenean etortzen naiz, afarira joan ahal izateko”.

Etorkizunaren gainean, Don Beniton jarraitzeko asmoa dutela esan digu; “hala ere, Bergarara joaten naizen bakoitzean, penaz itzultzen naiz”, azaldu digu.



**Zolas**  
Zure  
Opari Denda



Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...) mireia alberdi  
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 76 60 45  
(s) 646 43 34 58  
(e) mireialber@euskalnet.net

Ibargarai 44 BERGARA  
(t) 943 76 73 43

Olaran etxea, herriko plaza 3  
20577 ANTZUOLA

MENDIA

# Pou anaien ikus-entzunezkoa gaur arratsaldean, Novedades aretoan

Yosemite eta Madagaskarren grabatutako irudiak erakutsiko dituzte, 20:00etan

EDU MENDIBIL

Udazken Kultureko programazioaren barruan, Pou anaiek 7 pareta, 7 kontinente izenburuko ikus-entzunezkoa eskainiko dute gaur, egubakoitza, Novedades aretoan, 20:00etan. Munduko paretarik zailenak eskalatzen ari dira anaia gasteiztarrak.

Eneko (30 urte) eta Iker Pouk (26 urte) munduko paretarik esanguratsuenak eskalatzeari ekin zioten 2003ko udaberrian. Hain zuzen ere, Yosemiteko *El Niño* paretarik izan zen proiektu honen barruan egin zuten lehendabizikoa, 2003ko ekainean, AEBetan.

Horren ondoren, Europako Mendietan, Naranjoko *Zumbeltz* paretarik (2003ko udazkenean) eta joan den uztailan egindako *Brave les filles* izenekoak, Madagaskarreko Andringintra mendilerroan, etorri ziren.

## TSARANORO MENDIAN

Pou anaiekin batera, Miguel Del Pio eta Jabí Baraiazarra joan ziren Madagaskarreko hegoal-



Eskalada librea egin zuten Pou anaiek Madagaskarren.

JABI BARAIAZARRA

dean, barrualdean dagoen Tsaranoro mendira. 600 metro inguruko paretarik da *Brave les filles*. Uztaila osoa egin zuten Madagaskarren eta esperientzia zoragarria izan dela diosku Jabí Baraiazarrak: "Lehenbizikoa 17 egunetan ez genuen beste eskalazailerik ikusi eta gauza ederra izan da han bakarrik egotea. Uztailan negua zen han eta lileratuta utzi gintuen hango argitasun bereziak. Granitozko paretarik horia, gorria eta berde arteko nahasketa kolore bat zuen, benetan ederra.

Bestalde, jendeak oso ondo hartu gintuen. Zenbat eta herrialde txiroagoa izan, jendea are eta eskuzabalagoa da eta hori gertatu zitzaigun han. Gizon zuriak ikustera ere ez daude oso ohituta eta hango neska-mutikoei harrirituta geratzen ziren gu ikustean". 7 pareta, 7 kontinente egitasmoarekin jarraituz, Ozeania, Asia, Hego Amerika eta Antartidara joango dira Pou anaiek 2006 urtea bitartean. Gaurko emanaldiko sarrera doanekoa izango da. Emanaldiak 40 minutu inguruko iraupena dauka.

## TXIRRINDULARITZA

### Txirrinduzaleen batzarra eta afaria zapatuan

Bergarako Txirrindulari Elkarteak lagunak denboraldi amaierako afaria egingo dute zapatuan, hilaren 27an, Zuloa elkartearen.

Afal aurretik urteko batzarra egingo dute, 20:00etan. Gaur egun 60 bazkide inguru dira elkartearen.

## UDALA

### Dirulaguntzak jasotzeko eskariak egiteko epea

Bergarako kirol klub eta entitateek datorren urterako dirulaguntzak jasotzeko, abenduaren 31 baino lehen egin beharko dute eskaera. Bestalde, 2004ko dirulaguntzen bigarren ordaientzako jasotzeko, azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira agiririk. Argibideak: 943 77 91 67.

## FUTBOLA

### Preferente mailako taldeak lehen partidua irabazi

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak lehen garaipena erdietsi zuen zapatua, Agorrosinen. Bergara 4-1 irabazi zion Real Union B taldeari. Garin (bi gol), Zubikarai eta Oskar izan ziren etxekoek aldetik golegileak. Bergara sailkapeneko azken aurreko tokian dago.

## IGERIKETA

### Gutxituei zuzendutako igeriketa egokitua

Kirol Zerbitzuak igeriketa egokituko ikastaroa eskaintzen du. Aipatutako ikastaroa gutxituei zuzendutakoa da. Bergaran eskolak egubakoitzetan izango dira, arratsaldean. Izenematea eta argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

# Eski eta mendi denboraldirako txartela egiteko aukera Pol-Poleko bulegoan

EDU MENDIBIL

Hastear dagoen eski denboraldirako zein mendi denboraldirako federatu txartela egiteko aukera dago Pol-Poleko bulegoan. Interesatuak hara jo beharko dute aste barruan, 19:00etatik 20:30era bitartean. Txartel motaren arabera, ordaindu beharreko prezioa ezberdina da. Mendirako eta eskirako txartel bateratua ere eskura daiteke. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan. Aurten ere Pol-Poleko eskizetara joateko hainbat irteera egingo ditu. Lehenbizikoa

Gabonen ostean egingo dute, urtarrilaren 14-16ko asteburuan, Baqueirara.

**AZOKA TXIKIA ZAPATURA ARTE ZABALIK** Bihar, zapatua, mendi eta eski materialaren azoka txikia bisitatzeko azken eguna izango da. Eskiak, mendiko botak, pioletak eta bestelako materiala prezio interesgarrian erosteko aukera dago azoka txikian.

Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era izango da zabalik eta bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara irekiko dute azoka.



Eskizaleen kopuruak nabarmen egin du gora Bergaran azken urteotan.


ARTXIBOA

# Bergarako batzokiaren mendeurrenako ekitaldiak 1904-2004

• Azaroak 26, Ostirala;  
Hitzaldia: "Mendeurren baten inguruko gogoetak".  
Hizlaria: Iñaki Anasagasti.

- Abenduak 2, Osteguna; Aurkezpena. Juan Luis Bikuñak idatzitako "Bergarako batzokia: 100 urte" liburuaren aurkezpena.  
Hizlaria: Xabier Arzallus.
- Abenduak 16, Osteguna; Hitzaldia: "Estatutu politiko berriaren bideragarritasuna".  
Hizlariak: Jose Manuel Castells eta Xabier Ezeizabarrena.

Ordua: 19:30 • Tokia: Miguel Altuna institutuan.



Bergarako Batzokia  
San Pedro 4 • tel.: 943 76 47 00



FUTBOLA

# Gazte mailako taldeak, Aretxabaleta eta Santo Tomas Lizeoaren aurka

Bigarren kadete mailako taldeak eta nesken taldeek ere etxean jokatuko dute asteburuan

Bergara KEko gazte mailako futbol taldeek partidu garrantzitsuak izango dituzte aste bukaeran, Ipintzan. Lehen gazte mailako taldeak Aretxabaleta liderra izango du bisitari eta bigarren gazte mailakoak Santo Tomas Lizeoaren aurka jokatuko du.

David Lopez de Abetxukok eta Jose Ramon Beristainek zuzentzen duten lehen gazte mailako taldeak zapatuan galdu zuen ligako lehen partiduan, Legazpin, Ilin-tzaren aurka, 3-2. Bihar, zapatua, Aretxabaleta liderra hartuko dute Ipintzan, 17:30ean. Bi taldeak ohorezko gazte mailara igotzeko borrokan dira. Maila handiko partidua izan daiteke biharkoa, bi taldeak sendo ari dira-eta.

**SANTO TOMAS LIZEOA BISITARI**

Aurreko astean Antzuolan bana berdindu ondoren, bigarren gazte mailako taldeak Santo Tomas Lizeoaren aurka neurtuko ditu indarrak zapatuan, 15:30ean. Juan Carlos Gomez de Segurak zuzentzen duen taldeak ez du aurkari erraza izango, talde donos-



Bigarren gazte mailako taldeak bana berdindu zuen Antzuolan azken jardunaldian.

tiarra ligako indartsuenetakoa dugu-eta.

**NESKEN TALDEAK, ETXEAN**

Zapatuan beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan: alde batetik, nesken futbol 8-ko taldeak Gasteiz Cup taldea hartuko du zapatuan, 10:00etan. Senior mailan

ere Bergara eta Gasteiz Cup taldeak izango dira aurrez aurre, 19:30ean.

Azkenik, bigarren kadete mailako mutilen taldeak Sorraluzeren aurka jokatuko du zapatu goizean, 11:30ean. Azken jardunaldian bergararrek 0-6 irabazi zioten Aitzgorriri.

# Bergara-Egia senior mailako eskubaloari partidua bihar

E.M.

Euskadiko Txapelketan lehiatzen ari den Bergara KEko senior mailako eskubaloari taldeak Egia taldea hartuko du bihar, zapatua, Labe-garrietan, 17:45ean. Bergararrak eta donostiarrak sailkapeneko azken tokietan daude, biak ere puntu bakar batekin. Joan zen zapatuan Bergarak Portugaleten galdu zuen, 32-25. Orain arte lortu duten puntu bakarra etxetik kanpo lortu zuten Lander Juaristiren mutilek, Bilbon, EHU-UPV taldearen aurka berdindu zutenean.

Lander Juaristik zera esan

digu: "Azken partiduetan hobeto jokatu dugu, baina Portugaleten gaizki jokatu genuen, garai baten egindako hutsak errepikatuz. Ea zapatuan gure jokoa egin eta partidua irabazterik dugun". Zaleen laguntza ere ezinbestekoa izango da biharko partiduan.

**KADETE MAILAKO MUTILAK**

Senior mailako partiduen aurretik, kadete mailako mutilen taldeak Bidasoa izango du bisitari kiroldegian, 16:15ean. Aurreko jardunaldian Arrateri irabazi zioten bergararrek, 25-24ko emaitzarekin.



Senior mailako jokalariek denboraldiko lehen partidua irabazi nahi dute bihar.

FOTOKIROLA



**Muguruza-Gutierrez, finalerdietara**

Ander Muguruza eta Igor Gutierrez Gipuzkoako Pilota Txapelketako finalerdiak jokatzeke sailkatu ziren egubakoitzean. Bikote bergararrak 22-17 irabazi zion Amezketako bikoteari. Finalerdietan Huizi-Arrutiren kontra jokatuko dute, abenduaren 11n Asteasun. Bestalde, Gabon Sariko txapelketan, benjamin eta alebin mailetako pilota partiduak izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:00etan. /E.M.

FUTBITOTXAPELKETA

**ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK**

**ZAPATUAN, BARRUAN**

- 11:30: Niu Tim-Fac. Egurre
- 12:30: Kalaveras-Egurre. Fac

**DOMEKAN, BARRUAN**

- 09:30: Txipiron-Komando Piperrak. Canalejas
- 10:30: PDS-Canalejas. Txipiron
- 11:30: Irubide-Cosa Nostra. KMP
- 12:30: Egurre-KMP. Cosa Nostra

- 16:00: Mongatxurrak-Errotagain. A Ze Flaxa
- 17:00: A Ze Flaxa-De Resaka. Brescia
- 18:00: Arrano-Brescia. Agirrebeña
- 19:00: Agirrebeña-Pagomendi. All Blacks
- 20:00: SDTNT-All Blacks. Pagomendi

**DIODO LASERRA**



Gorputz osoko laser depilazioa

- Hiru hilabete behin
- Tratamendua bukatzeko lau edo sei saio
- Medikatuak egina

**GALDETU KONPROMISORIK GABE**

Barrenkale,35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

*Tartufo Jabetxea*

**Santa Luzia ospatzen!**

**Abenduaren 11n, zapatua, afaria**  
San Juan auzoa, Elgetarako bidean, Bergara

**STRIPTHEASEA ETA DISKOTEKA**

Mahaia alde zuzenean gordetzeko: 943 76 35 51

**Mujika**  
gozotegia

Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34

**t  
a  
n  
t  
a  
n  
a**  
Lurrindegia

# Orain Irala kalean




**GURE ZERBITZUAK**

- Kosmetika
  - Perfumeak
  - Osagarriak
  - Solariuma dutzarekin
  - Edertze aretoa
- Tel.: 943 76 24 82






**Aukera ezin hobea Azaroaren 29tik abenduaren 18ra  
PERFUMEAK, KOSMETIKA ETA OSAGARRIAK**

**%10eko  
deskontua**



Aro  
berria,  
erakusketa  
berria.



**FAGOR**

**jakina**  
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10  
BERGARA  
943 76 03 30



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 43. alia

## IEPA LAGUNOK!

**Z**elako hotza! Egun honetan gaz-taiñak belarra baiño gusto-rago jaten dittut. Egin kasu horoskopuari ze gomendixo interesgarriak esaten dittu. Gaiñera, Josu Aranbururi gustatu jakon liburu baten gomendixua irakurtzeko aukeria izango dozue. Ondo pasa asteburuan!



## URREZKO ARAUAK

- Egin kasu horoskopuari ze gomendixo interesgarriak esaten dittu.
- Gaur eguakitza danez, hasi zaitte astebururako plan eder bat egitten.
- ~~Egin kasu horoskopuari porke gomendixo interesgarriak esaten dittu.~~
- ~~la ke gaur eguakitza dan, hasi zaitte astebururako plan eder bat egitten.~~



## HOROSKOPUA



### capricornio

Gabonak segittuan ailegauko direnez, hasi zaitte Olentzerori kartia idazten, erregaloren bat nahi badozu!



### libra

Igartzen da pilotari izateko jaixo zarela, horrelako eskuekin ezin beste kirolik egin!



### aquarius

Ez zaitte asteburu honetan mendi aldera juan, eguraldi kaskarra iragarri dabe eta.



### leo

Zergaittik ez zara eskolako lanetan gehixago saiatzen? Ingurukuak laguntzeko gertu daukazazu.



### piscis

Hurrenguan litxarrerixa gutxiago jaten badittuzu, denbora gutxiago pasauko dozu komunian.



### scorpio

Itxura horrekin beste bat dirudizu! Lagunak be ez zaittue ezagutzen!



### cancer

Irribarre goxua eskaintzen badozu sarri, zure ingurukuek eskertuko dabe!



### virgo

Ezizu hainbeste amets egin esna zarela, badakizu eta danak ez direla beteko!



### sagittario

Ezetz jakin zenbat egun dauzkan urtiak? Galdetu inguruan daukazuari, ziur badakixela!



### aries

Egunian horrenbeste denbora telebistaren aurrian pasatu biharrian, beste zerbaite egitten hobeto pasauko dozu.



### geminis

la hurrengo astia, pasa dan hau baiño hobia daukazun, nekatu aurpegixa daukazu eta!



### tauro

Gaur egubakoitza danez, hasi zaitte astebururako plan eder bat egitten. Merezi dozu eta!

## LIBURU GOMENDIUA



**S**an Braulioko eroa, neri asko gustatu jat liburu hau eta oso ondo pasau dot irakurtzen. Liburu honetan zoro bat agertzen da, eta elizan bizi da dirurik ez daukalako.

Zorua oso ezaguna da eta jende asko juaten da bera ikustera. Bukaeria oso tristia da, azkenian zorua hil egi-tten dalako."

Xabier Monasterio · Alegi saila



Gomendiuaren egillia:

JOSU ARANBURU  
San Martin Agirre  
10 urte

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA/ Zabalik dago lanak aurkezteko epea urtarrilaren 7ra arte

# Amodiozko Gutunen Lehiaketan, 26 urtetik beherakoei ere emango diete saria aurten

IRATI AGIRREAZALDEGI

Hamahirugarren edizioa du aurten Jardunek antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketak. Aurtengorako oinarriak kaleratu ostean, zabalik dago lehiaketan parte hartzeko epea. Aurten berritasun bat izango du lehiaketak: 26 urtez beherako onenarendako saria.

Zabalik dago jadanik aurtengo Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzeko epea. Oinarriak kaleratu dituzte, eta datorren urtarrilaren 7a izango da lanak jasotzeko azken eguna.

Aurtengo berritasuna da 26 urtetik beherako onenari ere emango diotela saria. Bestalde, amodiozko SMS mezuen lehiaketa ere egongo da aurten, hirugarren aldiz. Gainontzeko sariak, berriz, urterokoak izango dira.

## OINARRIAK

Lehiaketan parte hartu ahal izango du 1990ean edo lehenago jaiotako edozeinek.

Posta elektronikoz bidaliz gero, gutuna eta egilearen datuak fitxategi banatan bidali beharko dira. Posta arruntez bidaliz gero, berriz, jatorrizko testua eta hiru kopia eta beste gutun-azal batean egilearen datuak. Izan ere, lanak izengoitiz sinatu beharko dira.



AITOR LIZARRALDE

lazio lehiaketako irabazleak, San Valentin eguneko sari banaketan.

Lanak honako helbidera bidali behar dira: Amodiozko Gutunen XIII. Berrigara Lehiaketa Jardun Elkarte, Errotalde jauregia z/g 20570 Bergara. Posta elektronikoz eginez gero, berriz, [kulturajardun@topagunea.com](mailto:kulturajardun@topagunea.com) helbidera. Mugaeguna urtarrilaren 7a da.

## SARIAK

Hainbat sari banatuko dituzte antolatzaileek. Irabazleak 450 euro jasoko ditu; bigarrenak, 240 euro; Bergarako lanik onenaren egileak, 150 euro; eta, azkenik, 26 urtetik beherako onenak, 100 euro. Sari hori izango da, hain zuzen, lehiaketaren berrikuntza.

Bestalde, orain dela hiru urte hasitako SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa ere egongo da aurten. Mezuak 605 71 24 69 telefono zenbakira bidali behar dira. Mezuok igortzeko epea, ordea, geroago irekiko dute. Izan ere, urtarrilaren 15era bitartean bidali ahal izango dira.

## 'Arrakalak' poesia emanaldia gaztetxean Bihotz Bakartien Klubaren eskutik

I.A.

Jardun elkartearen eskutik gaur, egubakoitza, Bihotz Bakartien Kluba taldearen azken lana ikusteko aukera izango da gaztetxean 22:30ean. *Arrakalak* da ikuskinaren izenburua eta Gotzon Barandiaranen poemetan oinarrituta dago.


Orain arte beste batzuen testuetan oinarritutako emanaldiak egin dituzte Bihotz Bakartien Klubekoek, baina oraingoan taldeko kide Gotzon Barandiaranen poemez osatutako ordubeteko saioa prestatu dute.

Horretarako, Begoña Vicario zinemagilearen laguntza izan dute. Haren ikasleek Barandiaranen poemetan oinarritutako

animaziozko irudiak prestatu dituzte.

Poesia formatu berrietara, lurralde berrietara eramatea da euren asmoa. "Oso irudi ikusgarriak dira eta ikuslea poesiara hurbiltzeko bidezidorra izan daitezkeelakoan gaude", diote Bihotz Bakartien Klubekoek. Taldeko musikariek poemei doinua ipini diete kantuak osatzeraino.

Musika eta irudirik gabeko irakurketak ere egingo dituzte. "Hitzari soineko bat baino gehiago probatuko dizkiogu eta arte espresio askoren batura den emanaldia benetan gozagarria izango delakoan gaude", esan dute taldekideek. Guztira hamar lagun biltzen dira emankizunetan: irakurleak, musikariak, teknika-riak eta aktoreak.



AITOR LIZARRALDE

Gotzon Barandiaran idazlea.



**EL CARMEN**  
GARBIKETA  
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua  
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak  
Moketa garbiketak  
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39  
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**REMENTERIA  
Altzariak**

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

ZAHARRAK BERRI

# Alargunek eta aurre-erretiratuek ez dituzte lortu legea aldatzeko beharrezko sinadurak

I.A.

**A**urre-erretiratuak eta pentsiodunen elkarteak sinadura biltzeko egin zuten, Parlamentuan euren eskariak azalduz legegintzako herri ekimena sustatzeko. Bildutako sinadurak, ordea, ez dira nahiko izan.

Espainiako hainbat elkarte hartu dute parte sinadura biltzeko; tartean, Debagoieneko Appalde elkarteak. Katalunia, Valentzia, Andaluzia, Madril, Gaztela eta Leon, Galizia eta Euskadiko elkarteek lege proposamena aurkeztu zuten Diputatuen Kongresuan. Baina Appaldeko ordezkariak jakinarazi dutenez, ez dituzte lortu eskaria aurrera ateratzeko beharrezko ziren 500.000 sinadurak.

Espanian bi milioitik gora alargun daude eta askok pentsio minimoa jasotzen dute. Bestalde, aurre-erretiratuak 400.000 dira eta horiek pentsioetan murrizketak jasaten dituzte. Egoera horrela egonik, harrizkoa da sinadura nahikoa ez jasotzea.



ARTXIBOA

Herrian sinadurak jasotzeko mahaia ipini zituzten aurre-erretiratuek eta alargunek.

Autonomia erkidego guztietan jasotako sinadurak guztira 413.584 izan dira, horietatik 151.633 Aurre Erretiratuak Eus-

kadiko Federazioak jasotakoak. Horren baitan dago ibarreko Appalde elkarteak, eta bertan 9.000 sinadura jaso dituzte.

## ESKARIAK

Aurre-erretiratuek eta pentsiodunek legea aldatzeko egiten duten eskari nagusia da euren

*Appalde aurre-erretiratuak eta pentsiodunen elkarteak 9.000 sinadura jaso ditu*

pentsioak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorreko pentsioen maila berean jartzea. Hau da, 65 urte betetzean erretiro pentsioaren %100 jasotzea. Betiere Gizarte Segurantzaren 35 urtez kotizatu badu. Izan ere, lege jarritako adina baino lehen erretiratu direnei urte bakoitzeko %7 edo %8 kentzen diete euren pentsiotik, eta neurri hori ezeztatzea da eskarrietako bat.

Bestalde, eskatzen dute alargunen pentsioak arautzeko oinarriari ezartzen zaion ehuneko %70 baino txikiagoa ez izatea; eta pentsio hori 600 eurotik beherakoa den kasuetan minimora iristeko laguntza bat ezartzea.



## Erretiratuak Eskulan ikastaroan

Martitzen arratsaldeetan elkartzen dira San Joxepe Elkarteak hainbat erretiratu eskulanak egiteko. Ines Elortza izan zen lehen irakaslea, baina orain Arantzazu Lizarralderen gidaritzapean jarduten dute. Taldean hamar lagun inguru daude, eta askotariko lanak egiten dituzte urtean zehar: josten, egurrekin, buztinarekin eta bestelako materialekin. Hori egin ondoren, Hamabostaldi Kulturean ikusgai ipintzen dituzte euren lanak.

## LABUR

### Alargunen Elkarteko bazkideen bazkaria abenduaren 8an

Azken urteotan ohikoa den moduan, Bergarako Alargunen Elkarteko lagunak urteko bazkaria egingo dute abenduaren 8an, asteazkena. Alargunen Elkarteak herriko emakumezko alargunen topaleku izan da 1978a ezker eta gaur egun, 80 bazkide inguru ditu taldeak. Aurten bazkaria Sirimiri jatetxean izango da eta izena eman nahi dutenek elkarteak Seminarioan duen lokalera jo beharko du; arratsaldean egoten dira bertan.

**SANTOS**



TIEN 21

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

**FRONTOI**



**TABERNA**

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09



**Irrintzi**  
kafetegia


Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77


BONOFOTOA



Ze auzotako elizaren aurrean dago ezkerreko iturria eta ze auzunetan eskumakoa?

GALDEDEBALDE

- |   |   |  |
|---|---|--|
| <p><b>1.</b><br/>Zenbat bazkide inguru ditu Bergarako Udal Liburutegiak?</p> <p>A/ 3.000.<br/>B/ 1.500.<br/>C/ 4.000.</p> | <p><b>2.</b><br/>Norena da Susa argiteletxeak kaleratutako Arrakalak poema liburua?</p> <p>A/ Gotzon Barandiaran.<br/>B/ Gerardo Markuleta.<br/>C/ Harkaitz Cano.</p> | <p><b>3.</b><br/>Madagaskarreko zein menditan izan ziren Pou anaiak uztailen?</p> <p>A/ Podomoro.<br/>B/ Ngorongoro.<br/>C/ Tsaranoro.</p> |
|---|---|--|



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**DOLORES ARANTZABAL** Endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Dolores!  
Galderen erantzunak: Bonofotoa: 15.050 / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Cresta Rosa

Ardo ardo gorri txinpartaduna, 75 cl

**2,99 €**

497 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!




BERGARAROSPETSUAK

Juan Irazabal

KOLDO PEREIRA

**J**uan Perez Irazabal erregearen kontularia izan zen Sevillan. 1576an jaio zen Bergaran, eta altxor eder bat oparitu zion bere jaioterriari: Jainko Jaunaren irudia, hiltzorian zegoela. Hona hemen dohaintza-eskriturako pasarte bat: "Bergarako herri honetako parrokiari jaiera handiz gurtzen den Jainko Jaun gurutziltzatuaren irudi deboziozkoa eta txit bikaina Sevillan egin zuen Juan Martinez Montañes eskultoreak (Juan de Mesak egin zuela demostratu zen gerora). Irudi horren egikera miresgarria zela eta, Sevillatik Bergarara bidali zuen 1626ko urrian on Juan Irazabalek. Irudia bere seme legitimo Juan Bautistari bidali zion San Pedro elizan jartzeko, eta semeak, aitik agindutakoa betez, San Pedro parrokiari eta hango eliztarrei eman zien 1653ko urriaren 5ean parrokiari egindako bilkuran, Pedro Igeribar erregearen eskribauak adierazitakoren arabera. Eliztarrek atsegin handiz jaso zuten dohaintza miresgarri hura eta kontulari ongileari eskerrak ematea erabaki zuten". Irazabal 1638an hil zen.

*Hiltzorian zegoen Jainko Jaunaren irudia oparitu zion bere jaioterriari Irazabalek*



**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Gezalaga familia, duela 38 bat urte

**G**aur egun, hiru seme-alaba dituzten guraso gazteen kasuak ia-ia apartekotzat hartzen ditugu; zer esanik ez, lau seme-alaba dituztenen kasuak.

Jakinekkoa da garai baten askoz seme-alaba gehiago izaten zituztela bikoteek, baina Gezalagatarren kasua benetan da berezia: hamabost seme-alaba izan zituzten Mariak eta Antoniok. Nahiko lan izango zuten gurasoek, Maria amak, batez ere.


Francoren garaian, diru-sari bat eta domina bana jaso zuten Antoniok eta Mariak, familia ugaria izateagatik. Antzuolan izan den familia handiena izan da Gezalagatarrena.

Hamabost seme-alaba izan zituzten arren, zaharrena ume txikia zela hil zen; gaur egun, hamabost haietatik hamabi bizi dira. Argazkian, berriz, hamalau anai-arreba ikus ditzakegu, atzean gurasoak dituztela.

Goian, gurasoak ikus ditzakegu, Maria Larrea eta Antonio Gezalaga, hain zuzen ere.

Gezalaga anaia-arrebak, berriz, honakoak dira, ezkerretik eskumara eta gazteenetik zaharrena: Begoña, Patxi, Tomas, Mari Karmen, Maria Luisa, Mari Asun, Migel Anjel, Jose Antonio, Luis, Jose Mari, Julian, Juanita, Milagros eta Juan Kruz.

Argazkia: Juan Kruz Gezalaga



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!


**GARRAIOAK  
 ANDUZU  
 TRANSPORTES**

BERGARA  
 607 349 043



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



**POL-POL  
 Taberna**


943 76 07 78. Bergara



**Silvestre Muñoz, s.l.  
 pinturak**

610 25 99 82  
 610 25 40 37  
 943 76 24 11  
 Amillaga 1, 10 pabilioia.  
 20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean  
 •  
 Pintura industrialia  
 •  
 Zoru arinak: sintasolak, mokeak...



**JAUJA  
 KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
 943 76 14 95

**OGIZUN  
 koop. elk.  
 okindegia**



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
 BERGARA OÑATI  
 943 76 45 53 943 78 24 13

**ZABALA  
 JATETXEA • OSTATUA**



Labegarieta, Ibarra 14  
 BERGARA.  
 Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko azaroaren 26a / 224. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Kongoren aldeko festa egingo du Anelkarrek


AINTZANE IRIZAR

**Bihar, zapatua, Elkartasun Festa egingo du Anelkarrek, Kongorako dirua batzeko. 19:00etatik aurrera izango da hori, Zurrategiko plazan. Argazki erakusketa, jolasak eta Bidezko Merkataritzako produktuak egongo dira hantxe, besteak beste.**

Anelkarrek antolatutako Elkartasun Festaren helburua izango da, batetik, Kongoko Kansenia herrirako dirua batzea, eta bestetik, herritarrei herri horretako egoeraren berri ematea.

Andres eta Bittor Arbulu, azkeneko urteotan, urtero egon dira Kongoko Kansenia herrian; lehenengo, herri horretara ura ekartzeko azpiegiturak egiten ibili ziren. Horretarako dirua batzen ibili ziren Anelkarkoak orduan. Orain, berriz, Kanseniako herritarren lehenetasuna da eskola berriak eraikitzea.

Ibarreko 15 herritako umeendako lehen hezkuntzako eskola berria eraikiko dute Kansenan. Eskola berria eraikitzeko bakarrik ez, ikasturtea ordaintzeko ere behar dute dirua.



BITTOR ARBULU

Iaz Antzuolatik bidalitako diruarekin egin zituzten eskolako mahaiak.

**Kanseniako umeendako eskola egiteko izango da bihar batzen duten dirua**

### EKITALDI UGARI

19:00etan hasiko dituzte ekitaldiak, Zurrategin. Jokin eta Josu trikitilarien saioa; Kongoko proiektuen argazki erakusketa; Bidezko Merkataritzako produktuen salmenta postua; toka eta igelaren jolasak; pintxoak, txokolata eta ardoa dastatzeko aukera. Ekitaldi horiek izango ditugu.

### Zirkulazioan, aldaketak

Astelehena ezkerre hainbat aldaketa egin dituzte. Aipagarrienak dira kale nagusietan egin dituztenak: Kalebarringo zubi paretik plaza-raino, noranzko bakarra du bideak, behetik goranzkoa, hain zuzen ere. Bestalde, plazatik Buztinzuri eta Kalegoi aldera ere behetik gora bakarrik joan gaitezke orain. Arazo gehien sortu dituen tokia da Sagastitik Kalegoirako bidea, bi noranzko dituelako; Udalak beharrezkoa ikusten du toki horretan hainbat hobekuntza egitea. /A.I.

### PAUSOKA

## Aukeratu dituzte batzordekide berriak

A.I.

Martitzenean, hilak 23, egin zuen Pausoka gurasoen elkarteak urteko batzar orokorra; baita ez ohiko batzarra ere, estatutuko hainbat puntu aldatzeko.

Urteko batzarrean, ohikoa den moduan, urteko diru kontuen berri eman zuten, urtean zehar antolatu zituzten ekitaldien berri eman zuten eta balorazio positiboa egin zuten, gainera.

Bestalde, elkarteko zuzendaritza berri egin zuten. Hamar lagunek osatzen dute zuzendaritza batzordea. Horietatik bost

lagunek laga egin zuten batzordea eta beste bostek jarraitu egingo dute. Horrela, bost batzordekide berri aukeratu zituzten martitzeneko batzarrean.

Honako bostak dira batzordekide berriak: Iñigo Irizar, Mari Karmen Iturbe, Junkal Bakalkoa, Yolanda Miner eta Garbiñe Lizundia. Lehendik jarraitzen dutenak, berriz, honakoak dira: Andoni Balerdi, Arantxa Lizarralde, Jon Legorburu, Juan Antonio Araiztegi eta Patxi Martin. Orain, euren erabaki behar dute zein izango den elkarteko presidente berria.

### LABUR

#### Santa Zezilia musikarien zaindariaren ospakizunak egingo dituzte etzi, domeka

Astelehenean, hilak 22, izan zen Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna. Herriko txistulari taldeak kalejira egin zuen egun horretan, baina, ez zuten bestelako ospakizunik egin. Domekan, berriz, mezaren ondoren abesbatzak emanaldia egingo du elizpean, eta horren ondoren luntxa egingo dute.

#### 'Troya' eta 'Asterix eta Kleopatra' filmak eskainiko dituzte oraingo asteburuan

Gaur, egubakoitza, helduendako filma eskainiko dute Olaran etxeko aretoan; *Troya* filma, hain zuzen ere, ikusi ahal izango dugu, 22:00etan. Domeka arratsaldean, berriz, umeen txanda izango da; *Asterix eta Kleopatra* euskarazko filma eskainiko dute, 17:00etan.

#### Kinto afaria egingo dute 1975ean jaiotakoek datorren abenduaren 11n

Abenduaren 11n, zapatua, kinto afaria egingo dute 1975ean jaiotakoek. 19:00etan elkartuko dira Larrea tabernan, eta Zumarraga joango dira ondoren; hantxe, Balentiña jatetxean egingo dute afaria. Parte hartu nahi dutenek Alaitz Jauregiri edo Julen Gariñanori jakinarazi behar dute, abenduaren 2a baino lehen.

#### Gazte mailako futbol taldea oso ondo dabil, eta sailkapeneko bigarren postuan dago

Ekintza taldeko liderrarengandik puntu bakarrera dago Antzuolako gazte mailako futbol taldea; 16 puntu dituzte antzuolarrek eta 17 puntu Ekintza taldeak. Bost jardunaldi besterik ez da geratzen liga amaitzeko. Orain arte jokatu dituzten zortzi partiduetatik bost irabazi, bi galdu eta bat berdindu dute antzuolarrek.





ANTZERKIA

# 'Inaxitoren ametsak' umeendako antzezlan, zapatuan

ANTZANE IRIZAR

Bihar arratsaldean, zapatua, *Inaxitoren ametsak* antzezlan eskainiko du Trikuharri taldeak; 18:30ean izango da emanaldi hori, Olaranen. Hain zuzen, 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta dago antzerki saioa.

Udalak antolatuta eta Kutxak sustatuta, Trikuharri antzerki taldearen *Inaxitoren ametsak* antzezlan ikusteko aukera izango dute herriko neska-mutikoei bihar, zapatua, 18:00etan, Olaran etxeko aretoan.

Gorka Tolosa, Xabier Sukia eta Ibai Esoain dira Trikuharri taldeko aktoreak.

Hain zuzen, 6 eta 12 urte bitarteko umei zuzenduta dago Trikuharri taldearen antzerki saioa, eta Inaxito izeneko mutiko baten abenturak kontatzen ditu. Hurrengo egunean geografiako azterketa du Inaxitok, eta horregatik kezkatuta hartzen du loak mutikoa. Ametsetan, igel bat gidari duela, herrialde herrialde ibiliko da, munduan zehar; herrialde bakoitzean pertsonai berezi batekin topo egingo du eta abentura dibertigarriak bizi izango ditu Inaxitok.

Horrela, Inaxito eta bere lagun berrien eskutik, munduan zehar bueltatxo bat emateko aukera izango dute herriko neska-mutikoei zapatu arratsaldean.

Ikuskizunaren helburua da hizkuntzarekin gozatzea. Horrela, ipuinarekin eta txisteekin batera, bertsoak ere tartekatuko dituzte.

Gorkak, Xabierrek eta Ibaik, emanaldi honekin, umei irribarrea eragitea, imajinazioa bultzatzea eta eurekin oso lotuta dauden ikasketen mundua eurenganatzea lortuko dute bihar; gogoratu, 18:30ean izango da emanaldia, Olaran etxean.



Igela izango du gidari Inaxitok bere bidaian zehar.



## Sanjosepe da kale berria

Azaroko osoko bilkuran, udalbatzarrak erabaki du Zurrategi eta Eguzki auzoen ostean osatu den kale berriaren izena: Sanjosepe izena, hain zuzen ere, izango du kale berri horrek.

Elkarri atxikitako hamahiru etxe familiabakar egin dituzte hantxe; aurreko asteo egubakoitzean eman zituen Udalak etxe horien dako beharrezko baimenak. Gauzak horrela, jabekideak hantxe bizi izaten jartzeko moduan daude./A.I.

## KIROLA

### PARTIDUAK

**FUTBOLA**  
Azaroak 27  
15:30: Antzuola-Urki (2. erregionalak)

**PILOTA**  
Azaroak 27 (Gipuzkoako Txapelk.)  
16:30: Olalde-Añorga I (Kadeteak)  
Ondoren: Olalde-Aretxabaleta (nag.)  
Ondoren: Olalde-Altzarra III (paletaz)

### EMAITZAK

**FUTBOLA**  
Legazpiko 2 Antzuola 2 (2. erreg.)  
Antzuola 1 Bergara 1 (Gazteak)  
Antzuola 11 Urki 0 (Kadeteak)  
Antzuola 0 Almen 1 (Neskak)  
Antzuola 14 Urki 3 (Infantilak)

**PILOTA**  
Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Eskoriatza-Olalde (eskuz nag.) . 21-22  
Elordi Herrigintza-Olalde (kad.) . 22-8  
Olalde-Gazteleku (paletaz nag.) 27-35

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJKA HARATEGIA**  
  
**Berezitasunak:**  
**Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak**  
Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**AITZ-GARBI**  
**taberna jatetxea**  
  
Pintxoak eta kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak  
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

**Tomas Gezalaza**  
**Zoruen kutxilatu eta bernizatzea**  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**Tomas Gezalaza**  
**Apainketarako eta industriarako pinturak**  
**Paper margotuak**  
**Moketak eta tapizatuak**  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**LEKY-BERRI MERENDEROA**  
Janariak eta edariak  
Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak  
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**DEKORAZIOA**  
**ABAD**  
**PINTURAK**  
ANTZUOLA  
**PAPER PINTATUAK**  
**Jose Gomez Abad**  
Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19  
**INDUSTRI MANTENIMENDUA**

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko azaroaren 26a / 208. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Izartu programatik ez du dirurik jasoko Udalak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Euskadiko hirigune degradatuak biziberritzeko programa da Izartu. Herri bakoitzak bere proiektuak aurkezten ditu eta horren arabera Eusko Jaur-laritzak erabakitzen du dirulaguntzak eman edo ez. Elgetako Udalarik aurten laguntzarik ez ematea erabaki dute.

Izartu programatik jasotako dirulaguntzen bitartez hainbat proiektu aurrera ateratzea zen Udalen helburua, baina Eusko Jaur-laritzak dirurik ez duela emango jakinarazi zuen. Ondorioz, Udalak errekurtsio bat aurkeztu zuen, baina errekurtsio hori ere ez dute aintzakotzat hartu.

Beraz, proiektu horiek gauzatzeko beste bide batzuk hartu beharko dituzte, eta egokienak zein diren aztertzen dihardute. Besteak beste, erakundeekin harreman zuzenagoak izateko aukera kontuan hartu dute.

### PROIEKTUAK

Diru gehien Mendi Museoa egiteko eskatu zuten, 1.800.000 euro, hain zuzen ere. Beste proiektuetako bat Salvador kalea oinezko-



ARTXIBOA

Domingo Iturben egingo den Mendi Museorako egin zuten eskari handiena.

endako izatea da, eta horretarako kalea egokitu behar denez, 400.000 euro eskatu zituzten.

Maalako parkeko, herri barruan aisiadirako guneak egiteko eta udaletxeko berrikuntzarako ere eskatu zuten dirulaguntza Izartu programaren bidez, bakoitzerako 300.000 euro.

Proiektu guztiak kontuan hartuta 4.741.000 euroko eskaria egin zuten 2008. urtera bitartean Izartu programaren bidez laguntzak eskuratzeko. Baina Eusko Jaur-laritzatik ezezkua jaso dutenez, dirua lortzeko beste bide batzuk aztertu arren baliteke proiektu batzuk atzeratzea.



## Eguneko Zentroa zabalik dago

Uztailen inauguratu zuten Eguneko Zentroa, baina astelehen honetan ipini dute abian. Bost lagunekin ekin dio jardunari: hiru elgetar eta bi eibartarrek. Oraindik bi leku daude libre, baina elgetarrek eskaria egin ezean beste herri batzuetara zabalduko dute eskaintza. Domingo Iturbe kalean dago Eguneko Zentroa eta eraikinean zaintzapeko etxebizitza ere badago. Hiru lagunendako tokia du etxebizitzak, baina hutsik dago oraingoz, eskaririk ez baita jaso./I.A.

## KULTURA

## Umeendako 'Mamburu' antzezlanana Espaloian

I.A.

Markeliñe antzerki taldeak *Mamburu* lana antzeztuko du domekan 17:00etan Espaloia Kafe Antzokian. Elgetako Udalak antolatu du ikuskizuna, eta umeendako antzerkia izan arren, nagusiek ikusteko modukoa ere bada.

Elgetan ikusi ahal izango den *Mamburu* antzezlanean esan beharrekoa adierazteko ez dute inolako hitzik erabiltzen Markeliñe taldeko aktoreek.

Markeliñeek eurek sortutako istorioa da. Ikusleak dibertitzea, harritzea eta hunkitzea du helburua.

### GAI NAGUSIA GERRA

Gerra izango da antzezlanaren gai nagusia, baina betiere ikuspuntu oso pertsonaletik begiratuta. Umeek, adinez txiki badira ere, badute etsaien, mugen eta abarren berri akziozko filmei esker. Lan honek *a priori* borrokatzera derrigortuta dauden soldaduen barru-barruko begirada izan nahi du. Itxuraz xumea, baina ikusle diren umeek gerra txiki horietaz

euren buruari galdetzeko proposamena.

Kontatutakoak batzuetan eurenak balira bezala har ditzaten saiaturiko dira antzezleak eta besteetan, berriz, inorenak ez balira bezala.

Berez umeendako ikuskizuna bada ere, gurasoek ikusteko proposa izan daiteke antolatzaileen esanetan.

Ikuskizunerako sarrerak Espaloian bertan erosi ahal izango dira bi euroren truke.



ARTXIBOA

Markeliñe antzeztuko du *Mamburu*.

## BETERANOEN PILOTA TXAPELKETA

### PARTIDUAK

#### AZAROAK 26, BARIKUA

21:00: Alex Arantzabal/Alberto Telleria-J.C. Errasti/Jesus Belamendia

Ondoren, Jabier Otxoa/Mikel Elkoropello Larrea/Joseba

Gero, Satur/Migel Arantzeta-Jabier Bolinaga/Iñaki Izagirre

#### AZAROAK 28, DOMEKIA

11:00: A. Morales/F. Zenitagoia-Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre

Ondoren, Mikel Larrea/Mikel Arkarazokoldo Goenaga/Roberto Basauri

Gero, Iñaki Ugarteburu/Enrike Ruiz-Angel Ibarluzea/Txapel

### EMAITZAK

Koldo Goenaga/Roberto Basauri-Satur/Migel Arantzeta ..... 22-19

Asier Morales/Fernando Zenitagoia-Jabier Otxoa/Mikel Elkoropello Larrea/Joseba ..... 22-10

Alex Arantzabal/Alberto Telleria-Pello Larrea/Joseba ..... 22-8

Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre-J.C. Errasti/Jesus Belamendia ..... 22-18

Jabier Bolinaga/Iñaki Izagirre-Angel Ibarluzea/Txapel ..... 22-16

Mikel Larrea/Mikel Arkarazokoldo Goenaga/Roberto Basauri-Iñaki Ugarteburu/Enrike Ruiz ..... 22-17

ELKARRIZKETA

FELI DESCARGA/BOLATOKI TABERNAKO JABE BERRIA

“Elgetako giroa gustuko dugulako hartu dugu taberna”

Joan zen barikuan zabaldu zituen Bolatoki tabernak ateak, epe batez itxita egon ostean. Bertara joanez gero aurpegi berriak ikusiko ditugu, gainera. Feli Descarga izango da hemendik aurrera Bolatokiko jabea eta arduraduna.

Nolatan hartu duzue Bolatoki tabernaren ardura?

Durango bizi banaiz ere sarritan etortzen gara Elgetara, eta hemengo poteo giroa beti gustatu izan zait. Inoiz ez naiz aurrez tabernaria izan, baina Bolatoki taberna hartuta guk ere giro horri kontribuzioa egingo diogu. Zenbat lagun ibiliko zarete tabernan lanean?

Hiru edo lau lagun. Astegunetan sukaldean bat, zerbitzari lanetan beste bat eta ni barran. Asteburuetan, berriz, beste lagun-tzaile bat ere izango dugu. Aldaketarik egin duzue tabernan ireki aurretik?

Pixka bat margotu dugu, baina gainontzean lehen zuen antzeko itxura du. Gure asmoa zen

barruko horma batean grafitiren bat margotzea, baina ez dugu denborarik izan. Beharbada udan-edo taberna itxita egongo denez, orduan aprobetxatuko dugu. Tabernari beste itxura bat ematea da gure asmoa, baina askorik aldatu gabe.

Zer eskainiko du Bolatoki tabernak?

Berrikuntza moduan, esan, hemen erretako ogia emango dugula eta opilak ere bertan eginak izango direla. Baina gainontzean aurreko jabeen erritmoa jarraitzen saiatuko gara. Egune-ro menuak emango ditugu eta asteburuetan kazuelatxoak, arrazioak eta ogitarkeoak ere. Egune-ro 09:00etatik 22:00etara izango dugu zabalik.

“Pixka bat margotu dugun arren, lehen zuen antzeko itxura du tabernak”

Tabernaz gain, kiroldegiaren ardura ere izango duzue. Zein da zuen eginbeharra?

Kirol instalazioak garbitzeaz arduratuko gara, baita pilotalekuaz ere. Horretarako beste langile bat hartu dugu. Bestalde, kiroldegira sartzen den jendearen kontrola eramatea gure lana da, baita saunarako bonoak saltzea ere. Hasiberriak gara honetan, baina erabiltzaileek eurek jakinarazten digute noiz sartzen diren eta argiak piztu behar ditugula. Pilotalekuan ere guk argiak pizten ditugu eta amaitzen dutenean eurek ixten dituzte ate guztiak. Ostiralean ireki zenuten. Nola joan dira lehen egunak?

Aurreko asteburuan martxa polita izan zen. Denboratxo bat itxita egon ostean jendea kostu egingo zaio berriz honako joera hartzea, baina pixkanaka hasiko dira etortzen.

Aurrerantzean zein asmo duzue?

Badugu ideia bat negurako, frontoian umeendako ikuskizunak antolatzeko. Asmoa besterik ez da, eta aurrerantzean ikusiko dugu nola doazen gauzak.



HERRITARREN HITZA/Maria Elena Eztenaga · Liburuzaina

Animatuko gara?

Tolosan Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa ospatu zela eta goibelaldi edo tristura antzeko zerbait sentitzen hasi naiz.

Hainbat burutapen izan ditut horren harira, hain zuzen ere, guk izan genuen abesbatzaren gainekoak.

Desagertu egin zen, beste gauza asko apurtu edo desagertzen diren bezala.

Hainbat arrazoi egon ziren hori gertatzeko: beharbada nekatuta geunden, ahots berriak falta zitzaizkigun, motibazio falta ere bageneukan, eta akaso, leku apropos bat ere ez genuen gure kontzer-

tu borondatetsuak emateko.

Goian aipatutako hutsuneak ez direla bete uste dut, baina behintzat leku apropos bat sortu dute herrian gure zoroaldi musikalentzat: Espaloia kafe antzokia, hain zuzen ere.

Orain, lehen hasi gineneko izpiritu animatzaile hura gudanatu beharra daukagu, eta elgetar guztiei, batez ere gazteei, dei berezi bat egin,



“Tamalez taldean edo koadrilan abesteko ohitura galtzen ari da”

jakin badakigulako musikaren arloan aparteko grina berezia dutela.

Euskal folklorea, benetan dotorea eta abesti zoragarriekin jantzia daukagu.

Tamalez, taldean edo koadrilan abesteko ohitura galtzen ari da, elkartu eta umore onean abestu, ez bakarrik lehiaketetan (guretako larregia da), baina bai plazer hutsagatik.

Hau da, edozein lekutan eta edozein aitzakia merkea topatzen ibili barik abestu, eta atsegin handiz gure eta aldamenekoek bihotzak alaitu. Nahikoa tristura eta arazo baditugu eta lehen ere gure munduan.

Gaztelaniako esaera batek dion erara: *Quien canta los males espanta*.

Ea egia den, artikulua honen izenburuan diodan bezala: “animatuko gara ala?”

Hala balitz, eta animatuko bagina, Euskal Herriko ohitura zaharrenetariko bati denon artean bultzatatzeko ematea lortuko genuke.

LABUR

Hiru talde bizkaitar gaur gaztetxean

Gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean 22:30ean hiru talde bizkaitarrekin. Markinako Oliba Gorriak eta Txato Plato eta Ondarroako Tuboskapi taldeak izango dira bertan. Oliba Gorriak taldekoek hardcore eta punk doinuak egiten dituzte. Txato Platokoek punk-rock doinuak, eta hauek gainera *Ju hadi etxa* diskoa kalean dute. Hirugarren taldeak, Tuboskapik, ska doinuak ekarriko ditu Elgetara. Kontzerturako sarrerak hiru euro balio du.

DANBAKA))))))

DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

SMS MEZUAK

Gustuko en duzun talde, bakarlarri edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.



# ILE APAINDEGIEN GIDA

AMAIA, CELIA ETA MARIMAR /KIZKUR ILE APAINDEGIKOAK

## 'TIGI produktuekin lan egiten dugu; produktu hauek Tony&Guy taldeak sortutakoak dira'

Zenbat urte daramatzazue orrazten?

Orain dela 17 urte zabaldu nuen ile apaindegia -dio Celiak. Amaia bere ahizpa, berriz, lau urte geroago hasi zen berari laguntzen eta orain dela zazpi urte estetikako zerbitzua eskaintzen hasi da. Hirugarren lankidea, Marimar, orain dela bost urte hasi zen ile apaintzaile.

Moda jarraitzaileak zarete?

Bai, noski. TIGI produktuekin lan egiten dugu; produktu hauek Tony&Guy taldeak sortutakoak dira. Urtero joaten gara Londresera Tony&Guy taldeak bertan daukan ile apaindegira. Urtean lau aldiz etortzen dira Bilbora Tony&Guy taldekoak eta azken tendentzien berri ematen digute.

Zer-nolako bezeroak dituzue?

Denetariko bezeroak ditugu, umeetatik hasi eta nagusietara, gizonetakoak eta emakumezkoak. Estetika sailean 22 urtetik beherakoentzat deskontu bereziak ditugu.

Jendea ausarta da?

Bai. Jendea geroz eta ausartagoa da. Mutilak geroz da gehiago ausartzen dira kolorea ematera ilean, depilatzera, gehiago zaintzen dira, guk orrazkera berriak egitera animatzen ditugu... Jendeak zaintzen du ilea?

Orokorrean bai. Lehen baino garrantzi handiagoa ematen zaio ilea osasuntsu edukitzeari. Profesionalek esaten digute Euskal Herrian garrantzi handia ematen diogula itxurari eta ilea ondo eramateari. Euskal Herriko ile apaintzaileak dira gehien eskatzen dutenak tendentzia berrien berri ematera etortzeko. Guk TIGI produktuak erabiltzen ditugu tratamenduak egiteko.



Amaia, Celia eta Marimar.

Bezeroei aholkuak ematen dizkiezue ala ideia garbiekin etortzen dira?

Normalean aholkua eskatzen digute, eta guk bakoitzaren ezaugarrien arabera orrazkera bat edo beste bat proposatzen diegu, estilo pertsonalizatuak eskaintzen ditugu.

Zer da gehien egiten duzuen momentu honetan?

Kolorea da momentu honetan gehien egiten duguna. Kolorea da lehenengo ematen dena, betiere gero egingo diogun orrazkerarekin pentsatzen. Orain kolorearena fantasia da, zeren kolore bat baino gehiago erabiltzen baititugu, oso polita da.

Ile apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

-Estetika orokorrean: aurpegirako tratamenduak, gorputzerako tratamenduak, manikura, depilazioa, ezkontzetarako eta fantasiako makillajea.

## KIZKUR

Bolu 51 - Bergara • 943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

## Aukera onenak

### ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara  
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

### AMPARO

ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA

Boni Laskurain 2 - Bergara  
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

### BEROTZI

PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara  
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

### disdira

ile apaindegia

Masterreka 7 - Bergara  
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloretan

### IDOIA

Espoloia 4 - Bergara  
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

### ileak

Ozaeta 3  
BERGARA  
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

### IZARRA

San Pedro 23 - Bergara  
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutxarekin

### ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara  
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

### Ostadar

Ibargarai 42 - Bergara  
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

### Pepelu

Zurradero 2 - Bergara  
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozte
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

### Sanchez

ile apaindegia

Fraiskozuri 4 - Bergara  
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozte
- Klasikoa/moderno
- Bizartegia
- Kolorea